



3 UDALA

Kiroldegi berriaren proiektuaz EHBilduren azalpenak

Jesus Zaballos PSE-EEko ordezkariak kiroldegi berriaren proiektuaren inguruan egindako agerpena dela eta EHBilduk hainbat azalpen eman ditu. Hauen hitzetan PSE-EE arduragabekeriak jokatuko du eta gezurak esan ditu. Alderdi sozialistak agerraldian aurkeztutako proiektua zirriborro bat besterik ez zela aipatu zuten besteak beste.

4 KULTURA

Jubilatuaren jolasak eta gazteen ikasturte amaiera

San Pedro jaiak gertu daudela iragartzen dute hainbat ekintzek. Batetik Udala Musika Eskolako ikasleek ikasturte bukatzeko bi emanaldi eskaini zituzten. Biyak Bateko jubilatuen mahai joko eta mugimendu lehiaketak martxan dituzte eta gaur Lan eta lan antzerki taldearen antzezlanaz gozatu ahal izango da Manuel Lekuonan.

**Hurrengo
Txintxarri
ekainaren
26an
kaleratuko
dugu, San
Pedro jaien
inguruko
xehetasun
guztiekin.
Bitartean
informazio
guztia
txintxarri.info**

Sorgin Jaiak ere prest

Festetarako antolatutako ekintzak aurkeztu zituzten Okendon

Sorgin Jaiak-eko kideek San Pedro jaietarako ekintza egitaraua aurkeztu zuten Okendo plazako hondartza berezian. Ohi bezala festei hasiera emango diote egun bat lehenago eta ekainaren 26an txupina botako dute Okendotik. Aurtengoan Xirimiri elkarte eta Ostadar omendu nahi dituzte urte luzeetan herrigintzan egindako lanagatik. Herritarrei dei egin zieten festa hauetan kalera atera eta ekintzatan parte hartzera.

Azto aurkeztu zuten Sorgin Jaietako kideek Okendo plazan San Pedro jaietarako prestatutako egitaraua.

"Azkenean badatoz Sorgin Jaiak. Urtebete pasa dugu une hau itxaroten eta hilabeteetako prestakuntza ondoren, prest gaude herria berriz edabe magikoz sorgintzeko".

Datorren astean emango zaie hasiera herriko jaietara eta hauekin batera Sorgin Jaiak lantaldeak ere egitarau zabal eta parte-hartzailea bideratu duela adierazi zuten.

Omenduak

Aurtengoan Sorgin Jaiak Ostadar eta Xirimiri omendu nahi dute. "Norbaitek jaietara hasiera eman beharko diela eta aurtengo Ostadar S.K.T eta Xirimiri elkarteak batera zoriontzeko aukera aproposa da. Batak 30 urte eta besteak 25, gazte-gazte biak eta oraindik ere



Okendo plazan hondartza muntatu zuten Sorgin Jaietako ekintza egitaraua aurkeztzeko.

lanerako gogo eta indarrarekin".

Bi elkarteak herriari asko emandakoak direla azaldu zuten, "laguntzeko prest eta herriko mugimendu eta herritarretatik beti gertu. Ez gara atzera begira jarriko, baina askotan egin dugu topo kaleko ekintza ezberdinetan. Bereziki eskertu nahi diegu gainera, Sorgin Jaiak sortu zenetik izan diren momentu gogorrenetan emaniko laguntza. Biba zuek!" Horregatik, "aurten sorgin-durik dauden lagun taldeak omentzea ezin egokiago iruditu zaigu, izan ere, esker oneko hitzak besterik ez ditugu zuentzat".

Aurtengoan nahiko urte berezia izan dela ere aipatu zuten antolakuntza eta adin-tarte askotariko lasarteoriata-

rrer osatua izan baita Sorgin Jaiak taldea. "Aldaketa hau oso aberasgarria izan da denontzat. Sorgin Jaiak gazteek antolatutako festa izatetik at, "gaztetasun" desberdinekoek ere prestaketa esku hartu baitute".

Ekintza bereziak

Egitarauetan, jokoak, kontzertuak, txapelketak denetarik antolatu dute eta horien artean hainbat azalpen eman zituzten.

Ekainaren 28an, bazkari herrikoirako, 12:00etatik aurrera Tximistarreta plazan kuadrila bakoitzak bere bazkaria prestatu beharko du.

Sorgin Jaiak jarriko dituzten aulki eta mahaia eta edaria sagardoa, ura eta ardoa, txartelak 2 eurotan salgai daude

Artizar, Gure Etxea, Avenida, Trumoi eta Ilargin.

Bakoitzak janaria prestatu beharko du eta bazkaltzeko beharrezko tresnak eraman sua, parrilla, eltzeak, kubierroak, platerak..., janaria, umorea eta konpainia ona ere eskatu zuten.

Kalimotxo lehiaketan parte hartzeko berriz, bakoitzak bere ardoa eraman beharko duela aipatu zuten baita "osagai sekretuak" ere.

Amaitzeko, Sorgin Gunean eraso sexista, arrazista eta homofoborik onartuko ez direla esan zuten. Era berean, "gunea txukun mantentzen lagun dezazuela eskertuko genizuke".

Herritarrak festa hauetan gozatzera animatu zituzten Sorgin Jaietako kideek.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Gorka Lasas
E.E.E.

Ezin bestekoa zait, Gure Esku Dago ekimenaren lan taldeko kide izanik, Lasarteoriarroki eskerrak eta zorion beroenak ematea. Eskerrak ere, Ekainaren 8an giza katean egon ahal ezin izan zenuten, baina azken hilabete hauetan gure lana ahalbiderrazten eta errazten lagundu diguzuenoi.

Egia da bai azken sei hilabeteotan eginko lanak bere fruitua ongi eman duela. Aspaldian herri honek lokatzen galduak zituen emozioak loratzen ikusi ditu, sentimenduak azalratzen; itxaropena, harrotasuna, indarra, gogoa, ilusioa,...ZORIONAK bene-tan.

Nazio artean ere jarraipena izan zuen mobilizazio historikoa izan zen, Euskal Herriko mugetatik at izan genuen oihartzuna, eta honelako herri txiki batentzat bada zerbaite. Bagenekien aldekoak eta kontrakoak izango genituela, jakina zen. Baina jakin ere bagenekien, lehenengo saiakeran denak tren bera hartzea ezinezkoa litzatekeela. Aniztasuna, desberdinen arteko batuketa eta kolore nahasketa nahi genuen eta baita lortu ere. Estatu espainiarreko hirugarren eta laugarren indar politikoek eman ziguten beraien atxikimendua, pozteko moduko keinua da, baina ez ezin bestekoa. Beti esan baitugu ekimen prepolitikoa dela hau, eta horrela jarrai dezan nahi dugu, hasiera hasieratik horrela aurkeztu baike-nuen.

Ekimen hau, tresna bat besterik ez da, erabakitze eskubidea lortzeko tresna soila. Non herritarrok dugun hitza, non herritarrok gera protagonista, parte-hartzaile eta elementu aktibo. Eta guk, herritarrok, Elkarrekin Etorbizuna Erabakitzea soilik eskatzen dugun.

Agian, utzikeria zantzuak nabaritu izan dituzue azken hamabost egunotan, baina ez da horrela, lanean dihardugu gerora begira. Nola utzi Ekainaren 8ko herritarren erantzuna alde batera? Honek badu jarraipena.

Ez ahaztu hau ez dela bukatu, hasi besterik ez da egin, beraz, laster izango duzue gure berri. Adi egon !!!

Zorion agurrak



Iker
Zorionak zure 8 urtebetetzean!!! Muxu asko familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Julen
4 Urte!! Txapel-dun!! Zorionak eta muxu erraldoiak guraso eta anairengandik!!!



Imanol
Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetzean!! Muxu pila bat zure famili osoaren partetik.



Lorea
Zorionak printzeza zure hirugarren urtebetetzean!! Txokolatetzko hiru muxu familiaren partez. Maite zaitugu!




Asier
Zorionak bihotza! 6 muxu handi handiak! zure aita, ama eta Iratiren partetik!



Jose Ramon eta Maria Pilar
Zorionak bikote! Eskerrik asko emandako guztiagatik. Urrezko muxuak denon partetik.



Alazne
Zorionak poxpolina eta disfrutatu zure egunean. 10 Muxu potolo guztion partetik.



Mirari
Zorionak, dagoeneko 9!!!! Maite zaitugu.



Mario
Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Zure arreba, izeba-osaba eta amoiñeren partetik.



Doryan
Eskerrik asko urte bete zoragarri hau eskaintzeagatik. Zorionak txapel-dun. Gurasoen partetik asko maite zaitugu.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Ariz.
- Pisu alokatzen da. Hiru gela eta bi komun ditu. Hegoaldera begira. Zumaburu auzoan. Harremanetarako, 605 770 436.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako 677 356 413.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun

eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 404 015 / 606 661 048

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Hodei Aristi Sanchez, ekainaren 8a.



Heriotzak

- Ana Maria Asensio Garcia, ekainaren 17an
- Pablo Garcia Torrientes, ekainaren 13an, 73 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 20	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 21	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 22	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 23	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 24	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 25	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldedia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKOA
ETA KULTURA SAIALA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Etzagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasas,
Ane Labaka, Mañu Amutu,
Asier Odiozola, Jone M.,
Hernandez, Jexux Artetxe, Pako
Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KIROLDEGIA

"Kritika arduragabeak"

Kiroldegiko proiektua berdin garatu behar dela azaldu du EHBilduk

EHBilduk PSEko ordezkariak kiroldegi berriaren proiektuaren inguruan egindako kritiken eta zenbait adierazpenen inguruko argibideak eman zituen atzo. PSE-EEren arduragabekeria eta gezurra salatu zuen. Alderdi sozialistak agerraldian aurkeztutako proiektua zirriborroa besterik ez dela eta proiektua berdin gauzatu behar dela jakitera eman zuen.



Nerea Sanchez eta Taxio Arrizabalaga kiroldegiako proiektuari buruzko agerraldian.

TXINTXARRI

Nerea Sanchez Hirigintza eta Taxio Arrizabalaga Kiroldegiko ordezkariak EHBilduren izenean, Kiroldegiko proiektua dela eta, alderdi sozialistari erantzuna eman zituen ostegunean.

EHBilduren ustetan, "kritika hauek ez dute inolako justifikaziorik eta guztiz arduragabeak dira, interes politiko-eklektoralista huts batzuei soilik erantzuten diete".

PSE-EEko ordezkariak haien agerraldian jada onartutako proiektu bat badela zioten arren, gezurretan dabilzala salatu zuten. "Aurreko legegintzaldietan, ez da sekula udalbatzar edo batzorde bakar batetan kiroldegi berritzeko proiekturik onartu. Eta horrelako dokumenturik ere ez digute utzi. Hirigintza departamentuan, bulego teknikoak egindako zirriborro batzuk dira dugun bakarra,

oinarizko proiektu bat ere ezazteratzen ez direnak".

Gainera, PSE-EEren planteamendua ezegokia eta arduragabea dela deriotzo EHBilduk, "errealitateaz jabe izan gabe, obra handi bat egitea asmo dute, kirola egin nahi eta egiten duen jendearen beharrak kontutan izan gabe".

Proiektua berdin

"Gustu txarreko manipulazioetan ez erortzeko", momentu honetan oinarizko proiektu bat bera ere ez dagoela eta proiektu honen lanketak, PSE-EEK herriko etxe guztietan banatu dituen planoetan oinarrituta egonda ere, kostu berbera edo handiagoa izango lukeela jakinarazi zuten. "Lan osoa PSE-EEK banatutako eskurrian jasota dagoela aditzera eman dute. Exekuzio proiektu bat ez ote dute behar marrazki horiek?", gaineratu zuten.

Eta arlo honetan lan serio bat egite arren, "aurreikusitako Plan Estrategikoarekin jarraituko dugu, herriko egungo kirolaren egoera, herritar guztien ekarpenak jasoz ebaluatuko duen azterketa eginez. Ostean, ikerketa honetan aurreikusitako kirol instalazioen moldaketa edo eraikitze lan berriekin, proiektua garatuko da. Gure herriak behar duen adinako proiektu serio eta landua kirola edo jarduera fisikoa egiten duten herritarren iritzia, proposamen eta beharretan oinarrituko dena".

Hau guztiaz gain, "70m neurtzen zituen bulegoa izatea planeatu zuten Jesus Zaballos berberak, orain, gure herriarentzat estrategikoa izango den eta Lasarte-Oriako kirolaren etorkizuneari funtsezko paper bat beteko duen azpiegitura batez mintzo denean, aurrezteaz dihardu," kritikatu zuten.

POLITIKA

Herriko EAJren bozgarailu

Lasarte-Oriako EAJk Zurekin aldzikaria aurkeztu zuen astelehenean. Maiztasuna finkatu gabe eduki arren, hiru edo lau hilabeteko banatuko da etxe guztietara.

Estitxu Alkortak adierazi zuenez, aldzikariak "herritarrei gure taldeak udaletxean egindako lanaren berri ematea du helburu". Informazio eta komunikazio lanetan "gehiago aritzea udal talde guztiek egin beharreko lan bat dela pentsatzen dugu".

Aldzikariak udal informazioa eta lurralde informazioa bateratuko dituela aipatu zuten.

Santa Ana jaietarako, uztailea amaieran, Zurekin aldzikariaren zenbaki berezi bat kaleratuko dutela ere aipatu zuen Alkortak "monografikoa izango da eta gaur egungo eta garai bateko alderdikide eta alderdizale guztiei zuzendutako omenalditxo izango da".



MERCATARITZA

Saltoki berri bat ireki zutenentzako laguntzak

Herriko komertzio eta ostalaritza aktibatzeke udalak diru-laguntza lerro berri bat sortu du iaz irekitako herriko establezimenduei zuzenduta eta 10 pertsonatik beherako mikro-enpresentzat.

Diruz lagunduko diren gastuen artean: enpresa eratzeko gastuak, alokairu fakturak, gizarte segurantzaren eta lokalean egindako inbertsioak. Bakoitzak jaso dezakeen kopuru gehiena 1.000 eurotakoa da. Ekaineko azken asterate diru-laguntza eskaria egin daiteke Udaletxeko erregistroan. Edozein zalantza argitu edota gehiago jakiteko, Villa Mirentxuko Enplegu Teknikariarekin harremanetan jarri, d.avila@lasarte-oria.org.

POLITIKA

Euskal Errepublikaren alde

Atzo eguerdian, Felipe VI. kargu hartze egunean, EHBilduk Euskal errepublikaren alde irri egin zuen Udaletxe zaharrenean aurrean. Hainbat herritar batu ziren elkarretaratze honetara.



Ate irekiak Atsobakar zahar egoitzan

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako buruak eta Ana Prieto Zerbitzuak saileko arduradunak Atsobakar egoitzan egin den itxura aldatzea aurkeztu zuten.

Gorka Lizarragak azaldu zuenez, "2012. urtean birgaitze lanak egin ziren Foru Aldundiarren laguntzaz, arden altzari guztiak aldatu ditugu. Beraz, berria dagoela esan daiteke".

Egoitza osoko altzari aldatetak 288.000 bat eurotako aurrekontua izan du. "Altzari funtzionalak izatea nahi genuen, egoiliarren erabilera eta beharrei egokitutakoak. Izan ere, egun egoiliarren %90 menpekoak dira," aipatu zuen Prietok.

Hau guztiaz gain, udal ordezkariak jakinarazi zuten eguneko zentroa 25 plazara eta zaharren egoitza 57 plazara homologatu eta egokitu dela.



Udal ordezkariak Atsobakar zentroan izan den itxura aldatzea aurkeztu zuten.

Bestalde, aurki eskumen aldatzea izango dela aurreratu zuten, "20 urteren ostean, Foru Aldundiak bere esku hartuko du egoitza".

Ate irekiak

Hau guztiagatik, "ospakizun eguna" antolatu nahi izan du Udalak eta bihar 11:00etatik 13:00etara herritar guztiei irekia egongo da egoitza.

Amalur trikitixa taldeko lagunek goiza girotuko dute, Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideen emanaldia eta luntxa ere dastatu ahalako da.

Gainera, egoitza ezagutzeko aukera ere eskainiko da 11:30, 12:00 eta 12:30ean egingo diren talde bisitei esker.

Udal ordezkariak herritarrek gonbidatzen dituzte ate ireki egun honetan parte hartzera.

PSErentzat Bilduk festen "politizazioa" egin du

Ohar bidez, PSE-EEK jakituz Bilduk ia jaien antolaketa Sorgin Jaiei utzi diela arden, "ezker abertzaleko jendea ordezkatzeko dute hauek eta San Pedro jaiak denek izan behar dira".

Jesus Zaballosen esanetan, "herriko festen egitaraua osatzeko garaian, lasarteoriatar guztientzat gustagarri izango diren ekintzak antolatu behar dira, eskaintza nahikoa egin da eta herriko leku desberdinetan. Jaietan parte hartu nahi duen orok aukera izan dezan". Sozialisten hitzetan, "udalak Sogin Jaietako kideei eman die festetako gune nagusia eta bertan antolatuko dituzte kontzertuak eta nahi dituzten ekintza guztiak, kontrolik gabe eta diru publikoarekin lagunduta gai-

nera. Horien artean, kalimotxo lehiaketa bat edota 5:30 eta 6:30ean antolatutako ekintzak. Udalak onartu dituen euren ekintzak ondorioetan pentsatu gabe".

Bilduk hainbat kontzertu antolatzeko erabilitako dirua gehiegizkoa dela dio Zaballosek. Andatza edota Isla plazetan antolatutako kontzertu eta berbena alternatiboak ez dira iristen aurrekontuaren herenera. Aldi berean, Zaballosek bere atsekabea adierazten du oharrean, goizeko bigantxak kentzeko erabakiaren aurrean.

"Azken batean, Bilduk bere jarraitzaileentzat antolatu dituzten festak gainontzeko herritarrek aukerarik gabe uzten dituen bitartean, eta guzti hori EAJk eta LOHPK onartuta".

San Pedroei aurre hartuz

Musika, mahai-joko eta mugimendu txapelketak eta antzerkia herriko taldeen eskutik

Lasarte-Oriako hainbat elkarte eta talde hasi dira San Pedro Jaierarako motorrak berotzen. Udal Musika eskolako ikasturte amaiera, Biyak Bat elkarteko mahai-joko eta mugimendu lehiaketak eta Lan eta Lan antzerki taldeko lanak San Pedroak gertu daudela iragartzen dute.

TXINTXARRI

San Pedro jaiak hasteko aste bete geratzen da. Baina herriko hainbat elkarte eta taldeek ikasturte amaierako emanaldiak edo San Pedro jaietako txapelketak antolatuta dituzte. Aste honetan Udal Musika Eskola, Biyak Bat elkarte eta Lan eta Lan antzerki taldea dira.

Udal Musika eskolak astearte eta asteazkenean eskaini zituen ikasturte amaierako kontzertuak Manuel Lekuona kultur-etxean.

Asteartean oholta gainean, eskolako txikiak eta hainbat instrumentu izan ziren.

Asteazkenean kamara taldeen edo helduen taldearen musikaz gozatzeko gain, ikasleen diploma banaketa ere ikusi zuten emanaldira hurbildu ziren herritarrek.

Txapelketa eta abesbatza

Biyak Bat elkarteak berriz, San Pedro jaietako mugimendu, mahai eta karta jokoen txapelketak jokatu ditu hilean zehar. Herriko jubilatutako mahai inguruan bildu eta

bakarka, zein banaka hainbat txapelketetan parte hartzeko aukera izan dute.

Musa 4 eta 8 erregeetara, tutea, eskoba edo brika izan dira hauetako batzuk. Asteazkenean, rabino lehiaketa izan zen. Ostegunean, berriz, sei-tara jokatu zen txapelketa.

Baina ez dira hitzorduak amaitu gaur, partxis txapelketa izango da eta astelehenetan, ekainaren 23an, domino norgehiagoka ikusi ahalko da.

Ekainak 24ean, aldiz, Biyak Bat elkarteko egoitza utzi eta Isla plazan pote, igela eta toka jokoen buruz burukoak izango dira.

Ekintza hauek guztiak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira. Saribanaketa, berriz, ekainaren 26an, osteguna arratsaldeko 18:00etan izango dela aurreratu dute elkarrekin.

Bestalde, ekainaren 25ean, 19:00etan Biyak Bat abesbatzeko kideen ahotsak entzuteko aukera izango da Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Elkarteak bazkide eta lagu-



Ekainean zehar Biyak Bat elkarteko kide eta lagunak mahai inguruan bildu dira mahai-joko eta karta txapelketetan.

nak gonbidatzen ditu antolatutako ekintzetan parte hartu eta jaietaz gozatzera.

Las nueras de Adan

Azkenik, gaur arratsaldeko 20:00etan Lan eta Lan taldearen antzezlan berriaz gozatu ahalko da, Las nueras de Adan.

Umorea ardatz harturik, autore ezberdinen bakarrizketak taularatuko dituzte. Emozioak, erokeriak,... ziur saio atseginez gozatzeko aukera izango dutela Manuel Lekuona hurbiltzen diren herritarrek.

Sarrerak internet bidez, 3,24 euro balio du; leihatilan, 3,50 euro.



Udal musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak eskaini zituzten.

Erketz, dantza eta ohitura uztartzen

Erketz euskal dantza taldeak, Erketzeko lagunak eta Erketz txikiak bihar ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute Okendo plazan. Musika eta dantza nagusi izango dira arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Talde guztiak ederki lan egin dute urte osoan zehar eta hainbat dantza lehenengoz eskainiko dituzte emanaldian. Baina aurtengo berrikuntza nagusia, oholta utzi eta plazan dantza egingo dutela da.

Dantza taldeko kideek jakin arazi digutenez, Ezpata dantza, desafioa, Markina Xemeingo mahai gainekoa, Agintariena eta Txotxongilo, Gasteizko zortzikoa, Auritzeko ingurutxo edo Behe Nafarroako inauterietako hainbat dantza izango dira egitarauan.

Era honetara, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Behe Nafarroko dantza eta ohituretan barrena ibilbide bat egingo du dantza taldeak.



Erketz, Erketz Txiki eta Erketzeko lagunak dantza taldeek bihar eskainiko dute ikasturte amaierako ekitaldia Okendo plazan.

Bestalde, Erketz Txiki taldeko gaztetxoek ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko irrikitan daude eta bihar izango dute aukera. Boastitzea, Esku dantza, Polka de Bebes, Txulalari, Alpagata, Zuberorako makil dantza eta Abaltzisketako txantxo dantza

eskainiko dituztela aurreratu digute taldeko arduradunek.

Eta hau guztiaz gain, euskal musikarako tartea ere izango da.

Dantza taldeak herritarrek gonbidatzen ditu Okendo plazara hurbildu eta emanaldiaz gozatzeko.

San Joan Sua

Hau guztiaz gain, San Joan Suko ohiturari jarraikiz, Erketz eta Erketzeko lagunak taldeek hainbat herritar eta udal ordezkariekin batera, dantza egingo dute San Joan bezperan, ekainaren 23an, astelehena.

Ospakizunak 21:30ean, hasiko dira Udaletxe zahar aurrean. Bertan dantzari taldeak zortzikoa eskainiko die herritarrei.

Ostean, kalejiran Okendo plazara iritsiko dira dantzari eta musikariak eta soka-dantza tradizionalari hasiera emango diote.

Aurreko urteetan bezala, Erketz euskal dantza taldekoekin batera udalbatzarreko hainbat zinegotzik egingo dute dantza, hala nola, Pablo Barrio alkatea edo EHBildu, EAJ eta LOHP-eko zinegotziak.

Eta hau amaitzean, 22:00ak aldera, herritar guztiak espero duten ueña iritsiko da, San Joan Suaren piztea.

Sua erre bitartean, kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dira.

Eta lasarteoriarrek urteko gauza txarrak erretzeko aukera izango dute.



(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

LABURRAK.-

Bihar goizean igerilekua itxia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, bihar ekainaren 21ean, Lasarte-Oria XXV. Saria dela eta, igerilekua goizez itxia egongo dela. Erabiltzaileek Urnieta, Andoain edo Usurbilgo kirol-instalazioak erabil ditzakete.

Era berean, Buruntzaldea IKTko arduradunek igerilekura gertatzeraz gonbidatzen dituzte herritarrak.

Landaberriko tenis taldeak finaletan

Landaberri ikastolako gazteak Gipuzkoako taldekako txapelketako finaletan ari dira lehian.

Lehenengo larunbatean ekainaren 14an, infantil mailako finalak jokatu ziren. Landaberri taldeko mutilek txapela eskuratu zuten eta neskek berriz, txapelundorde izan ziren.

Asteburu honetan, alebin mailako finalak izango dira Intxaurrendoko Mons kiroldegian eta Landaberriko hiru talde izango dira bertan. Nesken finalean Landaberri A eta B-ren arteko norgehiagoka izango da. Mutilen mailan, Landaberri Herri Ametsa izango du aurrez aurre.

Ur festa ekainaren 25ean

San Pedro jaiak gertu ditugu eta hauei hasiera ederra emateko Udako Kirol Zerbitzuak Ur festa antolatu du 2003 eta 2009 urte artean jaiotako haur eta gazteentzat ekainaren 25ean.

Bi txanda ezberdinetan, 2003-2005 urteetako gazteak 10:00etatik 11:00etara eta 2006-2009 urte artekoak 11:00etatik 12:00etara, igerilekuan jarriko diren puzgarri, oihala eta jokoak gozatu ahaliko dute.

Kiroldegiko bazkideek sarrera doakoa dute, bazkide ez direnek berriz, 3,70 euro ordaindu behar dituzte.

Kirol Zerbitzuko arduradunek gogorarazten dute, haur eta gazteentzat igeri egiten jakin behar dutela ekintza honetan parte hartzeko.

Bodegas hirugarren Gipuzkoako triatloi txapelketan

Lasarte-Oriako triatletak bi probatean izan ziren lehenengo asteburuan, Zarauzko Triatloian eta Gipuzkoako sprint txapelketan zuten Donostri Triatloian.

Azken honetan, Pili Bodegas herritarrak hirugarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean eta lehenengoa beterano mailan. Ez zen lehen hoguein artean sailkatu zen herritar bakarra izan, Amagoia Fernandez de Lezea 16. izan zen eta Noemi Montero laugarren beterano mailan.

Bestalde, larunbatean Zarauzko Triatloia izan zen. Honetan Imanol Arteaga, 4:41:19 izan zen herritarren artean azkarrena.

SQUASH.-

Squash finala bihar

Kontsolazio finala eta hirugarren postuak jokatu dira lehenik

XXVI. Squash txapelketa Soziala bihar amaituko da. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, squash-aren zaletuek hirtzordua dute kiroldegian. Kontsolazio finala, 3. postuaren lehia eta final handia izango dira ikusgai.

TXINTXARRI

Martxoaren 31ean 19 jokalarik hasi zuten XXVI. Squash Txapelketa Soziala. Bihar berriz, jolastuko dute finala handia.

Bi fase ezberdin jarraitu dira txapelketa honetan. Lehenengoan bi multzotan banatuak 19 jokalariek ligaxka jokatu zuten.

Talde bakoitzeko hiru hoberenak txapelundun fase-rako sailkatu ziren.

Hauek Xabier Amiano, Dani Davila, Imanol Olaizola eta izako txapelketako lehen hiru sailkatuak Iñaki Garcia Muñoz irabazlea, Iker Cañedo txapelundordea eta brontzezko postua eskuratu zuen Kinin Calvo izan dira.

Hilabete honetan zehar, itzuli bakarrek ligaxka jokatu dute eta sailkapeneko lehen biak izango dira finala jokatu dutenak.



Squash txapelketako txapelundun faseko azken partidak aste honetan jokatu dira.

Asteazkenera arte, finale-rako txartela izan zuten multzo honetan jokoan.

Bestalde, gainontzeko jokalariek kontsolazio fasea jokatu dute.

Hau kanporaketa sistema bitartez erabaki da eta Javier Serrano eta Raul Mateos iritsi dira finalera.

Finalak

Era honetara, bihar arratsaldeko 16:00etatik aurrera squash-aren festa izango da kiroldegian. Partida interesgarriak ikusi ahaliko dira squash pistetan.

Lehenik, aipatu legez, Javier Serrano eta Raul Mateosen arteko kontsolazio-finala izango da.

Aldi berean, 3. postua izango da jokoan. Honetan izako txapelundun Iñaki Garcia Muñoz eta Xabier Amiano izango dira aurrez aurre.

Ondoren, final handia jokatu dute Iker Cañedo eta Kinin Calvo. Hauek 2012. urteko finala izango dute gogoan. Orduan, Calvo irabazi zuen.

Beraz, Ikerrek azken bi urteetan ihes egin dion txapelketa lortzeko aukera du, Kinin Calvo berriz, 2012. urtean eskuratutako garaikurra berriro jantzi ahal dezake. Partida interesgarria benetan.

Finala amaitzean, saribanaketa izango da. Jokalariek udal ordezkarien eskutik jasoko dituzte trofeoak.

KIROL AGENDA.-

ATLETISMOA

Larunbata 21

Gasteiz, 10:30ean
LOKEko kadete mailako gazteek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Hernani, 18:30ean

Herriko hainbat atleta XVI. Azeri bila herri lasterketan izango dira.

Eskoriatza 23:00etan

Herriko hainbat atleta Eskoriatza Gabez Takarraran proban izango dira lehian.

Igandea 22

Donostia, 10:30ean

Herriko hainbat atletek Igeldoko igogean parte hartuko dute.

JUDO

Astelehena 23-Igandea 29

Coimbra

LOKEko Fermin Balda judoka stage batera doa. Bertan nazioarteko txapelketa batean ere parte hartuko du.

GIMNASTIKA

Larunbata 21

Kiroldegia, 11:00etan

LOKEko gimnastek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute.

IGERIKETA

Larunbata 21

Kiroldegia, 10:30ean

Lasarte-Oria XXV. igeriketa Saria ospatuko da.

TENISA

Larunbata 21

Mons kiroldegia, Donostia, 13:00etan

Landaberri A-Landaberri B
Alebin neskek. Gipuzkoako taldekako finala

Mons kiroldegia, Donostia, 14:30ean

Landaberri-Herri Ametsa
Alebin mutilek. Gipuzkoako taldekako finala

Asteartea 01-Larunbata 05

Kiroldegia, arratsaldean

Lasartenis tenis txapelketako lehen

jardunaldiko partidak izango dira ikusgai.

PALA

Astelehena 23 eta asteartea 24

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barren pilotalekua, 18:30etik aurrera

Txapelketako bi partida ikusgai.

Asteazkena 02 eta osteguna 03

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barren pilotalekua, 18:30etik aurrera

Txapelketako bi partida ikusgai.

SQUASH

Larunbata 21

HERRIKO TXAPELKETA - FINALAK

Kiroldegia, 16:00etatik aurrera

Javier Serrano - Raul Mateos

Kontsolazio Finala

Iñaki Garcia Muñoz - Xabier Amiano

Hirugarren eta laugarren postua

Iker Cañedo - Kinin Calvo

Finala

PILOTA

Larunbata 21

Atano III.-a, Donostia, 11:00etan

Donostia-Lasarte-Oria
Herritarteko txapelketa. Eskuz binako. Finalerdia

SAN PEDRO JAIEKOKO TXAPELKETA

Loidi-Barren pilotalekua, goiza osoa

Binakako esku pilota eta emakumezkoen pala txapelketako azken jardunaldiko partidak ikusgai.

Igandea 22

SAN PEDRO JAIEKOKO TXAPELKETA

Loidi-Barren pilotalekua, goiza osoa

Binakako esku pilota eta emakumezkoen pala txapelketako azken jardunaldiko partidak ikusgai.

Astelehena 30

SAN PEDRO JAIEKOKO TXAPELKETA - FINALAK

Loidi-Barren pilotalekua, 10:00etatik aurrera

Binakako esku pilota eta emakumezkoen pala txapelketako finalak ikusgai.

TRIATLOIA

Igandea 29

Donostia, 09:15etik aurrera

Herriko hainbat atletek Euskadiko Triatloi Olinpikoko txapelketa den XXIX Nazioarteko Atletiko San Sebastian Triatloia - Onditx oroituz proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 22

Biyak Bat elkartea, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Ondarrura egingo du itereara.

Agurain, Araba, 10:30ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Gaztetxoak sarian parte hartuko dute.

Ostirala 20-Astelehena 23

Aia-Segura

Buruntzazpi eskolako eta herriko jubenilak Gipuzkoako itzulia proban lehiatuko dira.

Agenda

Ostirala 20, 23:30, Abend Kafe-Antzokia



Oreindik taldearen agurra

Lasarte-Oriako Oreindik taldeak agur esango du. Orain dela 5 urte bere lehen kontzertua eskaini zuen leku berdinean agurtuko da taldea. Bost urte hauetako doinuak eskainiko ditu. Baina Oreindik taldearen doinuez azkenik gozatu baino lehen, Purple Explosive Jackets taldearen emanaldia izango da. Sarrera, doan.

San Pedro Jaiak

BIYAK BAT ELKARTEKO EGOITZA
Ostirala 20, 16:00etan
Partxis txapelketa izango da.
Astelehena 23, 16:00etan
Domino txapelketa izango da.

ISLA PLAZA

Astearte 24, 16:00etan
Pote, igela eta toka txapelketa izango dira.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Asteazkena 25, 19:00etan
Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldia.

San Juan Sua

OKENDO PLAZA
Astelehena 23, 21:30etik aurrera
Udaletxe auran zortzikoa dantzatu ostean, kalejiran Okendo plazara joango dira Erketz EDT eta soka dantzan parte hartuko dute herritarrek. Ostean, Okendo plazan soka dantza eta San Joan eguneko doinuak dantzatzuko dira.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 20, 22:00etan

Juncoren rumbaz gozateko aukera. Reencuentros diskako doinuak eskainiko ditu.

Ostirala 20, 23:55ean

Patxi Buenawixta dj-aren saio elektronikoz gozateko aukera.

Larunbata 21, 22:00etan

Jam Sessioa izango da. Oholtzara igo nahi duenak mikroa bere eskura izango du.



Larunbata 21, 00:00etan

Trace dj-aren musika elektronikoz gozateko auketa izango da.

Astearte 24, 20:00etan

Metalaz gozateko gaua izango da, Witch mountain, Black tusk eta Dawnfall of Gaia taldeen eskutik. Sarrerak aurretik 10 euro; leihatilan, 13 euro.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 21, 23:55ean

NIMA abeslariak "Esperanza dormida" diskako doinuak eskainiko ditu. Sarrera doan.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 20, 20:00etan

Lan eta Lan antzerki taldeko kideek "Las nueras de Adán" lana eskainiko dute. Sarrera interneten, 3,24 euro; leihatilan, 3,50 euro.

Dantza

OKENDO PLAZAN

Larunbata 21, 19:00etan

Erketz EDT, Erketz Txiki eta Erketzeko lagunak taldeen emanaldi koloretua izango da. Euskal dantzez eta musikaz gozateko aukera paregabea.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina amaiera arte

Euskal Herriko 2. Batukaden Topaketako argazki erakusketa ikusgai izango da.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra

Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehena San Pedro Jaiekin bat egiten duenez, hilabete honetan odol ateratzeak ekainaren 24ean, astearte izango dira. Beti bezala, Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango da hitzordua. Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Bidaia abuztuan Italiara

Lasarte-Oriako talde batek eta abuztuaren 2tik 12ra Italiara bidai bat antolatzen ari da. Bidai honetan, Siena, Napoles, Vesubio, Pompeya, Capri eta Roma ezagutuko dituzte.

Bidaia literadun autobus batean egingo dute eta gau gehienak bertako hoteletan pasako dituzte.

Informazio gehiago nahiez gero, deitu 638 051 794 telefonora edo e-mail bat bidali lasartetaldia@gmail.com helbidera.

Taldeak herritarra animatzen ditu, "primeran pasako dugu eta!!".

Eskutitza

Azken aste eta hilabeteetan gure herrian gertatzen ari denarekin guztiz harririk nago. Europar parlamenturako hauteskundeak izan genituela hiru aste pasatxo besterik ez direnean, gure herrian kanpainan jarraitzen dugu. Bereziki astunak egiten zaizkit hauteskunde kanpainak, promesa eta hitz gehiegi aurretik egin ez diren gauza guztiak zuritzeko. Hauteskundeetan aurretik jasaten dugun garai hori nikua ez eta gure herrian PNV-EAJ dirudienez marka guztiak haustekotan da. Europar hauteskundeak izan eta astebehera udal hauteskundeetarako bere zerrendaburua aurkeztu digu. Baina hori ez da dena, astean behin, bitan ez bada, prentsan hor agertzen baitzaizkigu bata edo bestea azaltzen. Zer da garrantzitsuagoa eurentzat, hurrengo hauteskundeetarako kanpaina egitea edo gaur egun dituzten udaleko ardurak behar bezala betetzea? Ardura instituzionalen garaia ala kanpaina garaia da? Nik argi dut batzuk zertan ari diren.

Azken udal hauteskundeetan, herritarren bozkek argi erakutsi zuten

Ardura instituzionala vs kanpaina

Lasarte-Oriak aldaketa behar zuela, hamarkada ilunen ostean. Aldaketa hori aurrera eramateko konpromisoa hartu zuten Bildu, PNV-EAJ eta Herriar Plataformak. Baina lehen aipatu dudan gisan, berriro ere PNV-EAJren jarrerak zeharo txunditu nau. PNV-EAJ herriaren beharrei erantzuteko lanean ari da edo beste lehentasun batzuk ditu?

Azken hilabeteetan behin eta berriz ikusi dugu Bilduren aurkako kritika zorrotzak egiten. Uste nuen bi alderdi hauek, Herritar Plataformarekin batera, udalean elkarlanean aritzeko akordioa sinatu zutela duela hiru urte, baina agian gaizki ulertu nuen. Kritikak egitea noski zilegi dela, baina guk herritarrok eskatu genizuega bai Bilduri, bai PNV-EAJri eta baita Herriar Plataformari ere herritarren beharrei erantzuteko eskuz esku aritzea izan zen. PNV-EAJren jarrera ikusirik ordea elkarlanerako baino liskarrerako borondate gehiago ikusten dut nik.

Zer dela eta etengabeko tentsio edota gatazka bilatze hori? Herritarroi zer mesede egiten digu horrek? Eta

nire galdera da: PNV-EAJ zergatik ari da elkarlanean aritu beharko lukeen aurka? Gaur egun Lasarte-Orian dugun udala baino nahiago du beste aukeraren bat? Argi esan dezatela!!! Zein da eurek proposatzen duten alternatiba? PSE-EE eta PNV-EAJren arteko udal gobernu? Hala bada, ulertzen dut euren jokaera. Bestela, norbere teitatuari harrika jardutea iruditzen zait azken hilabete hauetan egiten ari diren!!!

Azkenik, mesedez eskatuko nuzueke udalean ardurak dituzten bi alderdiei eta plataformari alderdikeriak alde batetara utzi eta herriagatik lana zintotasunez egiteko legealdia amaitzeko geratzen den denbora honetan. Elkartu zuen artean, eztabaidatu, adostu eta jarri martxan herritarren beharrik asetzeko ekintzabideak. Hauteskundeak berriro ere laster helduko dira, bakoitzak bere asmoak azaltzeko eta jendea konbentzitzeko aukera ederra izango du kanpaina garaian. Baina bitartean ekin lanari!

Liher Unanue Urdapilleta

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Boris Nogales Euskara Zinegotzia

“Euskara ikasteko bekak %40tik %85era igo dira”

Ikasturtea edota ikastaroa amaitu eta hamabosteko epea dute herritarrek bekak eskatzeko

Udalak euskara ikasleentzat orain arte zegoen beka sistema aldatu egin du. Maiatzetik, euskara ikasten duten herritarrek, %85eko beka jaso ahal izango dute, beti ere, ikastaroa 80 ordutik gorakoa izan bada eta asistentzia %85ekoa. Beka hauek ikastaroa amaitu eta hamabost eguneko epean eskatu behar dira. Onartuta, diruaren %60 orain bueltatzen da eta abenduan gainontzekoa.

Maidar AZURMENDI

Boris Nogales da udaleko Euskara batzorde burua. Aurten lehenengoz euskara ikasten ari diren ikasleentzat beka sistema aldatu da.

Udala eta Euskara saila sortu zirenetik martxan zeuden beka hauek eta aldaketa gutxi izan dituzte urte haue-tan guztietan. Zaharkituta eta nahikoa ez zirela iritzi-ta, aurten %40tik %85eko laguntza jaso ahal izango dute ikastur-te honetan euskara ikasi duten ikasleek.

Kurtsoa amaitu eta hama-bost egun dituzte hau eska-tzeko beraz, askorentzat gaur zabalduko da epea. Neurri honekin herritarrek euskara ikastera animatu nahi ditu Udalak. Iaz 110 beka eman zirela aipatu du Nogalesek eta aurten antzeko kopurua espero bada ere, aurreran-tzean gehitzea izango litzate-ke nahia.

Zehazki zer dira euskara ikasteko beka hauek?

Euskara ikasten diharduten herritarrek aukera dute ikas-turtean matrikulagatik ordain-du dutena berreskuratzea beka hauei esker.

Udal euskaltegian zein beste edozein euskaltegi edota barnetegietan parte hartzeagatik eskuratu daiteke beka. Gogoan izan behar da, behin ikasturtea pasata eskatu behar direla. Adibidez udal euskaltegioko ikasleek gaurtik hasi eta hamabost eguneko epea dute diru laguntza hau eskatzeko.

Aurten aldaketa garrantzi-tsuak egin dira. Zeintzuk?

Lasarte-Orian genuen beka sistema bailaran zegoenare-kin alderatuz, oso zaharkitua zegoen, Udala eta euskara zerbitzua sortu zirenetik zegoen indarrean beraz dago-neko urte batzuk zituen.

Iaz erabaki genuen aldaketa egin behar zela eta ikasturte honetan gauzatu.

Bestalde, euskara ikasten duten herritarren eskaera bat ere izan da.

Urte askotan aldatu gabe egonda kexaren bat jaso dugu. Gertatu delako hiru herri ezberdinetako ikasleak izatea gela berean, udal eus-kategian, eta herrikoak izatea diru gutxien jasotzen zutenak beka hauen bitartez.

Halakoez hausnarketara eraman gintuzten eta horregat-ik bailaran dauden bekekin parekatzeko aldaketa egin da aurten.

Diru gutxien ematen zuen herria zen Lasarte-Oria?

Bailara mailan gutxien ematen genuen herria ginen bai. Egia da ere, bi sistema geni-tuela; orokorra, edozein herri-tarrentzat %40 arteko beka eta talde berezientzat, guraso, merkatari eta begiraleentzat, %75 arte.

Diruari dagokionean gutxien ematen genuen Udala ginen eta bestetik, betebeha-rreko baldintza zorrotzenak jartzen zuena, izan ere, %90eko asistentzia eskatzen zen. Orain hau ere aldatu dugu eta asistentzia %85 izan beharko du.

Zenbat ikasle izaten dira beka hauen onuradun?

Aurten ez dakigu oraindik. Ikasturtean zehar euskara ikasten aritu diren herritarrek orain eskatu behar dituzte bekak, lehen aipatu bezala, iazkoan 110 eskaera izan genituen gutxi gorabehera. Aurten eskaera kopurua an-tzekoak izatea espero dugu.

Bakoitzak egin duen ikas-taroa amaitu eta 15 eguneko epean eskatu behar du.

Bekak bikoiztuta, diru par-tida bikoiztu egin da?

Bai bikoiztu egin da beka hauetarako bideratzen den dirua, iazko aurrekontuetan 25.000 euro bideratu geni-tuen eta aurten 45.000 euro onartu ditugu.

Esan behar da, Euskara saileko diru partida osoa,



2014ko aurrekontuan, iazko berdina izan dela, baina iaz adibidez liburu bat argitaratu genuen eta aurten proiektu hori ez dagoenez, diru hori eta bestelako ajustek eginda, bideratu ahal izan da.

Matrikula ordaintzeko bes-telako erraztasunak egongo dira?

Bai, beka sistema indartzeaz gain, hurrengo ikasturterako aurreikusitako ikasleei matrikula ordaintzeko nolabaiteko erraztasunak ematea ere.

Erraztasunei dagokionez, udal euskaltegioko ikasleek hamar hilabetetan ordaindu ahal izango dute matrikula, hilabeteetan 46 euro inguru. Horrek matrikulazioan eragi-na izango duela pentsatzen dugu.

Beka, argi utzi nahi nuke, edozein euskaltegietan dabi-len herritar orok du aukera eskatzeko.

Horretaz gain, Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen diren exentzio, tasak ordain-tzeko salbuespenak, eta hobariak daude eskuragarri.

Edozeinek eska dezake hobaria?

Gizarte Zerbitzuek bideratzen dituzte halako laguntzak eta 2014an salto handi bat eman da esparru honetan ere. Orokorrean langabezia tasa eta bizi dugun krisi egoeraren aurrean nolabait laguntzeko.

Exentzio edota hobariak, udal tasa guztietarako eska

daitezke eta eskuratu ditzake-te langabetu edota diru sarre-ra gutxi dituzten familietako kideek. Udal euskategian adibidez, matrikula Gizarte Zerbitzuek onartzen duten hobariaren arabera ordain-duko dute herritarrek.

Hobaria eta bekak batera-garriak dira?

Bai, hobariak eta bekak batera-garriak dira, hau da, herritar bati %25eko hobaria onar-tzen bazaio gizarte zerbitzue-tatik, herritar horrek beka eskatu ahal izango du, berak ordaintzen duen diru kopuruagatik.

Hobariak %25, %50 eta %75ekoak ematen ditu uda-lak.

Barnetegi edota bestelako euskara ikastaroak egiten dituzten herritarrek eska dezakete beka?

Orain arte barnetegiak hiru hilabetekoak izanda onartzen ziren bakarrik. Baina orain onartuko dira ere hilabeteko barnetegiak, beti ere, mini-moa betetzen bada.

Hau da, beka eskatzeko gutxienez, 80 orduko ikasta-roa izan beharko du.

Herritar gehiago animatuko al da euskara ikastera?

Espero dugu bultzada garrantzitsua izatea, horretarako egin dugu behintzat ahalegi-na.

Gainera udaletxeko beka-reakin batera, HABEren azter-ketak gaingiditzen badira,

ikasleek HABEren diru lagun-tza ere eska dezakete eta hori onartuta, herritarrek ia ordain-dutako %100 jaso dezakete bueltan. Oso aukera ona dela iruditzen zait.

Neurria nahikoa dela iru-ditzen zaizu?

Argi dago erakundeon aldetik doakotasunerako joera dela nagusi eta hala beharko lukeela.

Momentuz, bide ezberdi-nak egon daitezke euskara ikasleek ahalik eta laguntza gehien jaso dezaten. Guretzat orain martxan jarritakoarekin aukera badago %100a esku-ratzeko, laguntza ezberdinak eskatzu bada ere.

Euskara batzorde burua naizen neurrian, hau propo-satu genuen sailean landu ondoren, onartu eta ikusiko dugu aurrerantzean zein pauso eman daitezkeen.

Orain, gure esku dago beka eta laguntzen inguruko informazioa ikasle eta herritar guztiei irisaraztea hain zuzen, lehen esan bezala, euskara ikastera gehiago animatu dai-tezen datorren ikasturtera begira.

Horretan gaude eta espero dugu herritarrek ondo erant-zutea neurri berri hauen aurrean.

Datorren ikasturtean jarraikortasuna izango al du beka sistema honek?

Ordenantza aldatu dugu, beraz, hartutako konpromi-soa sendoa da.